

Bake konferentziak

El Mundo del País Vasco, 1991-11-29.

Modan daude bake konferentziak munduan zehar. Madrilen eratu berria dute juduen eta palestinarren arteko oso sonatuaren hasiera; kroata eta serbioen artekoa Europarren eskuetan aingira bezala ihesi dabil, etsi gabe halere; Kanbodian inoiz espero ez zen zerbait lortzen ari dira. Hemen, berriz, "terrorismo"aren minbizirik gaiztoenari nondik heldu ez dakigula gaude euskaldunok, ezer egiteko gauza ez garela. Kanpotik begira daudenek gure tristuraz kezkatuagoak dirudite garauek baino, hara azaroaren 21eko egunkarian exenplu ukigarria: 1) *The New Times*-en hiru antropologo ezagunak: Sharryn Kasmir, Geoffrey Bate eta Philip V. Silver ipar-amerikarrek salatzen dutena: "Euskal herrian biolentzia eta kontrabiolentzia dira nagusi, eta gatazka zibila ere bai"; jakin dute antropologo hauek herri honetako gizakiak bakeko bidearen zain daudela, baina "Felipe Gonzalez gobernuburuak tinko errefusatzeko duela irtenbidea", eta Euskal Herriko buru politikoek ere ez dutela funtsezkorik egin bakea bideratzeko. Niri zera etorri zait burura, hau ez dela osorik egia, Eusko Jaurlaritzak eskatu izan diela kanpoko adituei auzi hau ulertzeko eta konpontzeko ikerketa, nahiz eta emandako kontseiluen berri ez izan, sekreto balitz bezala gorde dutela!, isileko honegatik gauzak aurrera joan ez badira ere. Egia esan, harritzekoa da hainbeste urteko gorroto eta hauen ondoko heriotzak ehundaka, eta oraindik ez garela odolhuste negargarri hau amaitzeko egitazko ahaleginak egiteko gauza izan. Gure herriko arazo hau ez da palestinarrek juduekin duten auzia baino zailagoa, eta hala ere eseri dira azkenean elkarrekin, eta aurrera doaz, eta lortu beharko dute nolabaiteko elkarbizitza, honetara kondenatuta daude-eta alde bateko eta besteko terroristak.